

**EUSKAL AEKO ESKOLA-JARDUERARI BURUZKO ESTADISTIKA 2009-10 IKASTURTEA**

## Euskal AEn 2009-2010 ikasturteko ikasleen % 7,5 atzerritarrak izan ziren

### *Horietatik % 77k ikastetxe publikoetan ikasi zuen*

2009-2010 ikasturtean 31.990 atzerritarrek eman zuten izena Euskal AEko ikastetxeetan, Eustaten datuen arabera, hau da, matrikulazio guztien % 7,5 hartu zuten. Horietatik 29.303 ikasle Araubide Orokorreko Irakaskuntzan matrikulatu ziren, eta beste 2.687, aldiz, Araubide Bereziko Irakaskuntzan.

Orotara, 24.636 ikasle atzerritarrek EAEko ikastetxe publikoen sareko zentroetako batean matrikulatzea erabaki zuten, alegia guztien % 77k; gainerako 7.354 ikasleek ikastetxe pribatueta jo zuten. Horrek esan nahi du ikasle guztietatik % 11k eta % 4,3k, hurrenez hurren, aipatutako zentroetan ikasi zutela.

### **Euskal AEko ikasle atzerritarrak, espazio-eremuaren arabera**

	2009-2010 ikasturtea	2008-2009 ikasturtea	% Δ 10/09
<b>Euskal AE</b>	<b>31.990</b>	<b>29.315</b>	<b>9,1</b>
<b>Lurralde historikoak</b>			
Araba / Alava	6.974	6.113	14,1
Bizkaia	16.372	15.201	7,7
Gipuzkoa	8.644	8.001	8,0
<b>Eskualdeak</b>			
Arabako Ibarrek / Valles Alaveses	30	32	-6,3
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	6.241	5.519	13,1
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	61	28	117,9
Arratia Nerbioi / Arratia-Nerviión	202	172	17,4
Bidasoa Beherea / Bajo Bidasoa	1.301	1.076	20,9
Bilbo Handia / Gran Bilbao	13.105	12.230	7,2
Deba Beherea / Bajo Deba	755	702	7,5
Deba Garaia / Alto Deba	552	529	4,3
Donostialdea / Donostia-San Sebastián	4.006	3.806	5,3
Durangaldea / Duranguésado	1.233	1.081	14,1
Enkartzioak / Encartaciones	315	256	23,0
Errioxa Arabarra / Rioja Alavesa	136	126	7,9
Gernika-Bermeo	862	899	-4,1
Goierrri	890	815	9,2
Gorbeia Inguruak / Estribac. del Gorbea	64	44	45,5
Kantauri Arabarra / Cantábrica Alavesa	442	364	21,4
Markina-Ondarroa	238	212	12,3
Plentzia-Mungia	417	351	18,8
Tolosaldea / Tolosa	381	348	9,5
Urola-Kostaldea / Urola Costa	759	725	4,7
<b>Hiriburuak</b>			
Bilbao	7.048	6.787	3,8
Donostia-San Sebastián	3.005	2.874	4,6
Vitoria-Gasteiz	6.034	5.322	13,4

**Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eskola-jarduerari buruzko Estadistika. 2009-10**

Joan den ikasturtearekin alderatuta, lehenik eta behin % 9,1eko gorakada egon dela ikusten da. Horrez gain, gorakada edozein espazio-eremutan ikusten da, Arabako ibarretan eta Gernika-Bermeon izan ezik; toki horietan beherakada xumeak izan dira.


Lurralde Historikoei erreparatuz gero, Bizkaian biltzen dira ikasle atzerritar gehien (% 51); ondoren dator Gipuzkoa (% 27) eta azkenik Araba/Álava (% 21). Eskualdeei dagokienez, probintziako hiriburuak hartzen dituztenak nabarmendu behar dira: Bilbo Handia (% 41), Arabako Lautada (% 20) eta Donostia (% 13).

Datu esanguratsu gisa azpimarratu behar da hiriburuetan biltzen direla ikasle atzerritarren % 50, honela banatuta: Bilbon % 22; Vitoria-Gasteizen % 19, eta azkenik Donostian % 9,4.

### Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programetan (HLPP) eta Helduentzako Hezkuntzan bildu zen atzerritarren kopuru handiena

Hezkuntza mailaren arabera sailkatuz gero, ikusi da Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programetan (HLPP) eta Helduentzako Hezkuntzan biltzen dela atzerritarren ordezkartzarik handiena, aukera horiek jasotzen baitituzte matrikulazio guztien % 32 eta % 24, hurrenez hurren. Halaber, Hezkuntza Berezian, Erdi Mailako Lanbide Heziketan eta DBHn dauden kopuruak nabarmendu behar dira, neurri txikiagoan izan arren.

### Hezkuntza mailen araberako ikasle atzerritarren proportzioa (%). 2009-2010 ikasturtea



**Iturria: EUSTAT. Euakal AEko eskola-jarduerari buruzko Estatistika. 2009-10**

### 10 ikasle atzerritar bakoitzeko lau Hego Amerikatik etorri dira, zehatzago esateko Kolonbiatik, Boliviatik eta Ekuadorretik.

Ikasle atzerritar gehienak Amerikatik iritsi dira, % 48, eta horietatik % 43 Hego Amerikakoak dira, % 4 Erdialdeko Amerikakoak eta azkenik, % 2 baino ez dator Ipar Amerikatik.


Afrikatik iritsitako ikasleek osatzen dute Euskal AEko ikasgeletan presentzia handiena duen ikasle atzerritarren bigarren taldea (% 27), eta Marokok proportzio handia hartzen du (% 14).

Ehuneko txikiagoak hartzen dituzte Europatik (% 19), Asiatik (% 7), eta azkenik Ozeaniatik iritsitako ikasleek; azken horren kasuan, datua % 0,08koa baino ez da.

**Euskal AEk seigarren postua du ikasle atzerritarren ehuneko txikienak dituzten Espainiako autonomia erkidegoen artean.**

Euskal AEk seigarren postua du ikasle atzerritarren ehuneko txikienak dituzten erkidegoen artean; soilik Ceuta (% 2,5), Extremadura (% 3,2), Galizia (% 3,5), Asturias (% 5) eta Andaluzia (% 5,4) gainditzen ditu.

**Ikasle atzerritarren proportzioa autonomia erkidegoen eta irakaskuntza moten arabera (%) 2009-2010 ikasturtea**



**Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eskola-jarduerari buruzko Estatistika. 2009-10**  
Ez dira Helduentzako Hezkuntzako datuak aintzat hartu

Gure autonomia erkidegoa Espainiako batezbestekoarekin alderatuta, 3 puntu beherago dagoela ikusten da, matrikulatutako kopuru orokorrari zein Araubide Orokorreko Irakaskuntzan ikasten dutenei dagokienez. Araubide Berezikoko Irakaskuntzan ikasten duten ikasleen ehunekoari dagokionez, batezbestekoaren gainetik dago, baina aldea txikia da, ez da ehuneko puntu batera iristen (0,8 p.).

Bestalde, hauek dira beste nazionalitate batzuetako ikasle gehien dituzten autonomia erkidegoak: Balear Uharteak (% 15), Errioxa (% 14) eta Madril (% 13), eta Euskal AEarekin alderatuta 9, 8 eta 7 puntuko aldea dute, hurrenez hurren.

---

**Argibide gehiago:**

*[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)*

*Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)*

*Harremanetan jartzeko pertsona: Matxalen Plágaro Alonso*

*Tel.: +34-945-01 75 99 Faxe: +34-945-01 75 01.*

*Euskal AEko Eskola-Jarduerari buruzko Estatistikaren gainerako prentsa-ohar gehiago.*

*Euskal AEko Eskola-Jarduerari buruzko Estatistikaren gainerako datu-bankua.*